

# Nafarkaria

• ostirala • 1999ko abuztuaren 27a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**

**Arakil-Uharte** • Artzain Zakurren Lehiaketa eginen da etzi, Artzain Eguna dela eta.

**Javier Zuñiga** • «Suhiltzaileen arteko komunikazio oinarri izan nahi du aldizkariak».

## Saralegitarren eraman handia



Herri kirolak izen handi asko eman ditu, baina familia berean harria jasotzen, edo aizkoran, edo herri kiroltako probak prestatzen kasik kide guztiak ibili izan diren familiarik gutxi izanen da Euskal Herrian. Esteban Saralegik Leitzako Arro baserrian beste aizkolariei erakutsiz ikusitakoa izan zuten hasteko aitzakia, eta, geroztik, Saralegi familiako kiderik ez da falta izan plazan, ezta faltako ere, aitaren lekukoa haren seme-alabek jaso baitzuten. Gabriel, Nartxi eta Kristina Saralegi aizkolariak eta Migeltxo harrijasotzailea dira hark utzitako uzta. Horien lana ez da galduko, Nartxiren semeek ere aitonak hasitako bideari ekin baitiote, aitaren arrimoan.



Arakil-Uharte ●

# Artzainek urte osoan egin dezaketan jai bakarra

Artzain Egunaren 32. aldia izanen da igandean, jai giroan

**Lehiaketa ugari eta jai giroa izango da nagusi igandean Arakil-Uharten. Eta artzain txakurren txapelketa izango da, aurten ere, denetan arrakastatsuen.**



Artzain Egunean hainbat erakusketa izaten dira. ● ARTXIBOKOA

**D**UELA 50 BAT URTE KATALU- niako Nuriaren Monas- tegitik gertu antolatu zen Es- painiako I. Artzain Txakur lehiaketa. Albaitari baten ideia hura bertan ezagutu zuen oñatiar mendizale talde batek, eta oso gustukoa izaki. Oñatin antzeko bat egiteko proposamena egin zien herri- tarrei. Gipuzkoako herri hor- rretan izandako arrakasta ikusirik, Euskal Herriko gai- nerako herrialdeetara zabal- tzea otu zitzairen.

Jose Maria Ustarrozek dio- enez — Aralar Mendi elkarte- ko kidea da bera —, "ordu- an, Aralarko San Migelerako bi- derik errazena eta erabili- ena Arakil-Uharte barreneko- a zen, eta, noski, gipuzkoar- rak urtean zehar askotan ibiltzen

ziren hemendik". Lehenengo urte hartan, hala ere, herri- ren laurden bat suak hartu zuen, eta horrek atzeratu egin zuen jai.

Sei urte geroago egin zen lehen ekitaldia, eta harrezke- ro, urtero egin da. Urteotan, Arakil-Uharteko Artzain Egu- naren itxura asko aldatu da

eta lehiaketa berriak gehitu zaizkio artzain txakurrenari. Horrela, egun, ardi latxaren erakusketa eta esne-produk- zio lehiaketa ere bada. Artal- dean —bildotsetan zein gai- nerakoetan— talderik edo bakarkako aharirik onena duen artzainarentzako sari- rik ere ez da falta. Txakurren

lehiaketan parte hartzen duten artzainetatik jantzirik dotorena daukanak ere saria jasoko du, eta euskal artzain zakur arraza onena- rentzako ere izango da beste bat. Ustarrozek dioenez, azken bi urteotan polemika izan da. "Atzerriko arrazaren bat tartean sartu nahi izan dute, baina gure helburua hemengoa babestea eta eza- gutaraztea da".

Gazta lehiaketa ere egingo dute. Aurtengoa 16.a izango da eta irabazten duenak 45.000 pezeta eta garaipen agiri- az gain, ahariko bat jaso- ko du. Baina, ikusmira gehie- na Geinbera barrutian izango da. Han, 17:00etatik aurrera, artzain txakurren lehiaketa hasiko da. Dagoeneko bede- ratzik eman dute parte har- tze- ko izena, eta ez dago fabo- rito argirik.

Bisitari ugari izaten da fes- tan, baina Ustarrozek azpi- marratu duenez, artzainak dira jaiaren protagonista. "Hauxe dela egun bakarra art- zaina goizean goizetik alkan- dora zuriarekin etxetik atera eta alkandora berarekin buel- tatzen dena iluntzean". Aralar Mendikoek-eko kideentzat, horrelako ekitaldiak beha- rrezkoak dira artzaintza au- rrera atera dadin.

→ Urko Aristi

Atallu ●

## Gaur hasiko dira jaiak

HERRIKO ZAINDARIA TXIKIA omen da, behintzat ezi- zen hori du. Bere ohorez egiten diren jaiak, ordea, handiak ere badira beren txikitasunean. San Joan Txiki jaiak ospatzen dituzte Atallun abuztu- ren azken asteburuan.

Gaur, 11:00etan, bota- ko dute jaiak hasiera emanen dien suzeria. Meza ondoren, bazkal- tze- ko ordua izanen dute. Muxutruk taldearen tri- kiti doinuak ere ez dira faltako. Biharkoa puska- biltzearekin beteko dute. Ohiturari jarraiki, aurten ere Xapre eta Zarra triki- tilarien laguntza izango dute etxez etxeko ibilbide horretan. Arratsaldean, herriko eta inguruko haurrak izango dira pro- tagonista, jolasean ariko baitira sariak eskuratze- ko lehian. Gaueko ordu txikietan dantzaldia izan- en da, Triki Ta Kerekin. Haiek atsedena hartzen duten momentuan, Ata- lluko V. Txinga Proba eginen da, eta, bertan neurtuko da norainoko indarra ematen duen festetan egin den beste kirol horrek: edalontzi- jasotzeak, alegia.

Etzi, mezaren ostean, herri hamaiketako eskainiko zaio nahi duen guztiari. Arratsaldean, txirrindularien eta las- terkarien arteko desafioa eginen da. Horien oste- an, Araizko Aritz, Oskar eta Pellorena bertsola- riek ariko dira. Igandeko doinuak, Triki Ta Ke tal- deak joko ditu.

→ Urko Aristi

muga enea

MIKEL REPARAZ



## Eskandaluaren erlatibitate kezkarria

**A**sensio bulegoa itxi zuen, eta eguna egin duenaren epeltasunaz arrankatu zuen Audi beltza, ministerio ateko bi seguru- sun agenteak -arratsalde on- agurtu ondoren. Fer- nandez eta Hernandez uniformatuek salutantzia militarra egin zioten oradainez. Irratia izeki eta zor- tzi- etako albiste emankizunak inbaditu zuen kotxea. "Eskandalua!" egin zuen orru minutu gutxiren bu- ruan. Eta estereoa itzali zuen.

Afaltzera eseri zen Asensio. Emazteari musu ematea ahaztu zuela ahaztu eta albistegian entzun- dakoa etorri zitzaion burura. "Maria", esan zuen, "ekartzazu telefono gidaliburua, listina". Eta Mariak obeditu. Gizonak telefono zerranda esku artean har-

tu eta solomoa kontrako eztarrian beheti joan zi- tzaion. *Efectivamente*. Egia zen. Zortzi- etako albiste- gian entzundakoa egia zen. Navarrako listinaren azalean ez zen *Navarra* hitza ageri. Aldiz, inpresio akatsa zela medio, *Nafarroa* izena irakur zitekeen. *Nafarroa* iraina. Sakrilejioa. Asensioaren aurpegia gorritzen hasi zen. Bulegoko banpiro azaletik arrosa pastelera lehendabizi. Arrosatik turista britainiarren azal gorriantzeri gero... Eta labearen ezkila "klink!" egitear zelarrik, Asensioaren aurpegiak gibel kolore morea hartu zuen. "Eskandalua!", egin zuen orru.

-Asensio eskandalu hura ahantzi du, eta beste hamaika eskandalu xumek mingostu dizkiote ha- maika afari orduz gero. Eskandalu xumek, ordea,

emaztearengatik urrundu dute Asensio. Jada ez du begitu ere egiten afalduan, eta telebista ipin- tzearekin batera hitz bakarra adi ohi zaio: "Eskan- dalua". Bien bitartean, Maria haien semeaz solas- ten zaio, gure semeak hamasei urte dituela, eta oso gauza arraroak egiten dituela. Larunbatero etxetik atera eta igandera ez dela etxera bueltatzen, eta auzoko diskotekan pilulak hartzen ikusi dutela. Ma- riak mutikoaren konfesioa konta nahi lioke Asensio autistari. Gure semeak drogak hartzen dituela aitortu du. "Espainiako Gubernuko droga kontsumoaren aldeko kanpainak diote, ama: atsedetik ez drogari- k gabe". Baina Asensio ez du afera linguistikoa soil ba- tek kezkatzen. Hori akatsa baita; ez eskandalua.



# Bertiz ●

## Zaldientzat bidea itxita

Orain 50 urteko testamentuari so, zalditegi baten jarduera gerarazi dute

Orain sei urte Bertizko Parkean zabalduko zalditegiak atek itxi behar izan ditu, Oierregiko kontzejuko alkatearen eta zalditegiko arduradunen arteko tirabirak medio. Arazoa aspaldi hasi bazen ere, aste honetan jakinarazi dute aurrerantzean ez dutela zerbitzu hori eskainiko Bertizen.



Aurrerantzean Bertizen ezin izanen da zaldiz ibili, BKZk bere zerbitzua eten baitu.

EDURNE KOCH

**B**idasoa Kultur Zerbitzuak (BKZ) enpresak orain sei urte parkearen alde batean eginiko zalditegiak bertara hurbildutako ehundaka turista jaso ditu. Bideragarria izanik ere, Jose Miguel Galarregi Oierregiko kontzejuko lehendakariak zalditegiaren jardunarekin aitzinera jarraitzeko paratutako trabak salatu ditu BKZk. Hauen ustetan Galarregik oztopo bertzerik ez dio paratzen zalditegiari, jarduera bera debekatuz, zalditegia hobetzeko lanak geldituz, eta turismoa mugatuz. Alkateak, aldiz, orain 50 urte parkeko nagusi zen Pedro Zigak utzitako tes-

tamendua hartu du aintzat. Testamendu honen arabera, Bertizko Parkean ezin da onura ekonomikoa bilatzen duten jarduerarik aurrera atera, eta zaldi eta gurdien ibiltzea ere galarazita dago. Honen berri izan zuenetik makina bat ate jo dituzte BKZkoek, baina arrakastarik izan gabe. Duela sei urte ide-

kitako zalditegiak laguntza handiak izan zituen turismoa bultzatzeko poltsetatik, eta Nafarroako Gobernutik bereziki. Bertze ingurueren batera zalditegia eramateko aukera erabat baztertuta dute zalditegiko arduradunek, «garestiegia bailitzateke». Halaber, salatu dute, horrelako laguntzak jaso ondoren,

«herritarrei zaldian ibiltzeko aukerarik» ezin eskaini ahal izatea. Gainerako jarduerekin jarraitzeko asmoa agertu dute. Zalditegia Narbarteko egoitzara eramateko aukera baztertuta, zaldiak salgai paratu dituzte, jarduera erabat itxi dutenaren seinale.

→ Jon Abril



### herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Xiberoko Botzaren kanpaina

Xiberoko **Botza** irratia etxe etxe eginko azken kanpainaren berri eman du **Herria** astekariak kaleraturiko azken zenbakian. Urte oroz bezala, Xiberoko Botzaren adiskideak etxe etxe ibili dira, irratia aurrera egiteko laguntzak beharrezkoak baitira.

Irratiaren helburuak, ikusmolde guztiak errespetatuz, Zuberoako berrien hedatzea, euskal kulturaren sustatzea eta bestelako kulturei zabaltzea dira, euskarari lehentasuna emanez. Xiberoko Botzak zerbitzu berria eskaintzen du iragan urtetik: herrietako berriak eta herrietako bizia egiten duen gertakarien berri ematea. Eta horretarako,

herrietan laguntzaile eta berriemaile anitz ditu irratia. Gainera, emankizun egileetan ere baditu laguntzaileak: sukaldaritza, literatura, sindikatu, gizarte, kirol eta musika sailetan besteren artean. Orain Xiberoko **Botza** euskal irratien lanaz nahi du aberastu, eta **Irulegiko** Irratiarekin eta Gure Irratiarekin batera elkarlanean ari da. Egunero lau ordu emititzen dute batera: berriak eta emankizun tematikoak.

Eman nahi dituen aurrerapausoak emateko, teknika berrien laguntzaren behar dago Xiberoko **Botza** irratia, eta informatika sistema berri batez ekipatu da berriki. Berrikuntza horiek

guztiak antenaren kalitatea dute helburu. Laster Mauleko hedagailua goratu dute eta Xiberoko **Botza** hobeki entzuten ahalko da. Eta lan guztia errazteko lokal berria hartzeko nahian dabil Xiberoko **Botza**; ordenagailu berriek leku anitz betetzen dute eta bost langileek oso leku eskasa dute lanerako.

Hori guztia lortzeko ia laurogei pertsona ari dira 35 herritan kanpaina egiten, Xiberoko **Botzak** herritarren laguntza behar baitu. Eta laguntza eskertzeko, belarretan edo hondartzan egoteko lastozko txapel bat oparituko die laguntzaile guztiei.



urda  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

### VOLKSWAGEN Atlantida 99

Antartidatik bueltan artikulu bat idazteko esan didate, azaltzeko ea zerk bultzatzen gaituen horrelako espedizioak egitera, adierazteko zer sentitu dugun basamortu txurian emandako hilabete luze hortan. Nola egin orde! Sikiera poeta bannendi! VOLKSWAGEN POLO. Bainan ez naiz poeta, gizon hutsa baizik. Neure espediziokideen antzera amets eder baten atzetik dabilen gizon hutsa. Baina arazoa amets eder hori zehazteko orduan azaltzen zaiagu. Nola adierazi 50 gradu azpitik ikusitako irribarre bat? CERVECERIA ROTXAPEA. Nola azaldu izotz ekaitz baten pean denda bat zutitzeko hil ala biziko benetako behar hori? EROSKI SUPERMEKATUA. Ez gaitzen engaina, gauza horiek ezin dira hitzez adierazi. Akaso hori da gure abentura-gogoaren azken eta lehendabiziko helburua: hitzak alde batera utzita... hitz gezurti horien atzetik izkutatzen diren benenak esperientziak zuzenean... bizitzea! PASCUAL BITXIDENDA. Zer naiz ni nire esperientziarik gabe? Ezer ez. Zer da Paskualito, eta hemen edozein espediziokide aipatu nezake, berak maite duen natura miragarri hortan bizi izan dituen bizipenak kenduta? EGUNKARRIA. Antartidak zu zeu izateko baimena ematen dizu. Bai horixe. Han ez dago irudia desitxuraturako duen ispilurik. Izotz urdin gardenenak han dira eta, sinestazue, zure begirada era garden batez isladatuko dutenak dira horiek. Andonik, ezinbesteko atseden txiki batean, esan zidan bezala "begira, hori nire isla da eta lehendabiziko aldiz... aurpegi erre eta bizar izoztu horren azpian... nire burua ezagutu dut". IRUÑERRIKO LUR MANKOMUNITATEA. Baina agian serioegia jartzen ari naiz. Hitzen gezurrak eta bizipenen egiak alde batera utzi eta utzidazue mahai gainean ditudan argazkien deskripzio txiki batzuekin bukatzen. Bat: Andoni, Paskualito eta hirurok. Zutik gaude eremu txuri infinitoan. Gure ondoan enperador motako pinguino bi kamarari begira. ANOZ LIBURUDENDA. Bi: Paskualito eta biok. Elurmuino txiki batzuk lautada hotzean. Elurrez estalitako gure motxilak. Hiru: Ni neu ageri naiz. Hori da Hegoaldeko Polo magnetikoaren monolitoa. Eskuetan gure sponsor baten banderatxoak erakusten dut. EXPLOSIVOS ALAVESES. ●



# Saralegitarrak: aizkorian eta harrian iaioak

Aita zenaren arrimuan herri kiroletan hasitako seme-alabek horretan jarraitzeaz gain, horien ondorengoek ere bide bera hartu dute

Herri kirolak izen handi asko eman ditu, baina Euskal Herrian familia gutxi izanen dituzte hainbeste senide herri kiroletan murgilduak: harria jasotzen, aizkorian edota herri kirol frogak prestatzen... Esteban Saralegik Leitzako Arro baserrian beste aizkolariei erakusten jarduten zuen, eta hari ikusitakoa izan zuten hasteko bide Saralegitarrak, eta, geroztik, familiako kiderik ez da falta izan plazan. Gabriel, Nartxi eta Kristina Saralegi aizkolariek eta Migeltxo harrijasotzailea dira hark utzitako uzta. Horien lana ez da alferrik galduko, Nartxiren bi seme ere aitona hasitako bideari ekin baitiote.

LEITZAN, LEITZALARREA PARAJERA DOAN errepidea hartu eta berehala dago Arro baserria, Saralegitarren etxea, eta herri kiroletan hainbat izen on prestatu dituen sehaska. Atarian, urribelarrak estalita, hainbat pago egur antzeman daitezke, Euskal Herriko edozein plazatan mozteko prest. Egunotan sargori dago herrian eta hego-haizeak jotzen du. Gehiegi lehor ez daitezten eta mozteko modu onean egon daitezten, egunero bustitzen duten belarrarekin estaltzen dituzte. Solasaldira familiako kide asko bildu zaizkigu: Nartxi eta Kristina Saralegi aizkolariek, Migeltxo harrijasotzailea eta aizkorian hasi berriak diren Nartxiren bi semeak. Haurrak zer ikusi hura ikasten omen du, eta Saralegitarrak hori bete dute. Esteban Saralegiri, aita zenari, etxean ikusitakotik datorkie aizkolariek eta harriarekiko grina. «Gure aita zena Astibiatarrak ibiltzen zen erakusten. Pakito Astibia beti hemen prestatzen zen, gure baserrian, eta hura ikusitetik hasi ginela uste dut. Izugarrizko egur pilak egoten ziren etxe atarian eta aizkora ere beti eskuan izaten zen. Kutzape batean sartu eta kito. Handik hartu eta horrela aritzen ginen», gogoratu du Nartxi. Pakito Astibiarekin hasi omen zen aita, «eta hartaz gain, baserrietik pasatu izan dira entrenatzen gaurko egunean Euskal Herriko plazetan dabilzan aizkolaririk onenak», gaineratu du.

Nartxi Saralegi:

«Kiolariok geurok saiatzen gara gauzak hobetzen, diru laguntzak bilatzen. Orain herri gehiagotan jartzen dira erakustaldiak. Lan asko egin behar dugu geurok, baina mejoan ari dela uste dut»

Zaharrenetik gazteenera

Seme zaharrena izan zen aizkorian hasi zen lehena. Egun 43 urte ditu eta anaia eta arreba laguntzen baditu ere, utzia du kirola. Berak zabaldu zuen Euskal Herrian altueran egurra mozteko era — orain 22 urte Australiatik etorritako aizkolariek ekarria —. Tolosako zezenplazan australiarrek egindako erakustaldian Esteban zenak eta Gabrielelek australiarren olak erosi zituzten. Baserrian bost urte-edo gordeta egon ondoren, ondoko gaztandian entrenatzen hasi zen Gabriel. Hainbat plazatan ibilia, baita hainbat ikara hartua ere: bi aldiz erori zen bost metroatik; batean hankak hautsi zituen, bestean gerrian izugarrizko kolpea hartu zuen, eta, beste behin, lurrean ari zela hanka bat ebaki zuen. Aizkorak ihes egin, eta oinbularra bi puska egin zion. Eskarmentu nahiko hartu zuela ikusirik, utzi egin zuen. Urte askoan bakarrik aritu zen eta gero hasi ziren besteak. Haren lekukoa Nartxi anaia bigarrenak hartu zuen. Etxe atarian aizkorian ariz, aita zenaren eskutik — aizkolariek eskatzen zizkiotelarik (edo berak eskainita bestela) — plazetara ateratzen hasi zen. Egun 39 urte ditu eta 30 urtez aritu da aizkorian. Orain, Iruñeko Jolaskide gimnasioan egiten du behar, eta bai lurrean bai bost metroko altueran aritzen da. «Jendeak gehiena eskertzen duena bost metroko altueran aritzea da. Olak sartu eta ateraz bost metroa igotzea eta han mozte», azpimarratu du.

Nartxi bi seme ditu. Rubenek, zaharrena, erakustetarako egiten ditu aitarekin batera. Zortzi urte ditu eta aizkorian «bastañe ongi» ibiltzen dela dio. Astean hiru aldiz entrenatzen da aizkorekin, eta ez omen da «neko»a. Bigarren semeak, Enokok, sei urte besterik ez dituen arren, aitari eta anaia irarritu die. Mutikoen aizkorak kilo erdikoak dira —Ruben hasia da kilokoarekin ere—.



Entrenatzeko pagoa erabiltzen dute, baina plazara ateratzen batzuetan makala jartzen dute, errazago mozten delako. Semeek hartu duten bidez pozik dago Nartxi, eta ahal duen heinean, lagundu egiten ditu. «Orain egurrak prestatzen ere ikasten ari dira. Txikitatik ez badute ikasten... Badakizu, aitak prestatu dena eta hauek jo eta ebaki, hori erraza da», dio irribarrez. Hortaz, Saralegitarren sokak ez du etenik.

Neskak ere aizkorian

Hirugarren semea zerbait aritu bazen ere, ez zuen besteen ildoari jarraitu. Hori bai, etxean bi alabak ere ekin zioten aizkorian. Maribik Kristinak eta Kristina alaba gazteenak dienez, «beti hori ikusi eta huraxe ikasi». Herri kiroletan emakume gutxi dabilza —sokataran izan ezik—, eta banakako ahaleginak zailak badira ere, pozik dago hartutako erabakiarekin. «Betik izan dugu horretarako giro ona ba-

serrian, eta Gabriele asko lagundu zigun. Aita zena bezala, Gabriele ere izan du erakusteko gogoia eta biokin aritu zen», dio. Maribik ezkondu egin zen eta utzi egin zuen. Orain Kristinak jarraitzen du. Neskak 25 urte ditu eta zortzi urte daramatza aizkorian. Lehenago gauza arrotza bazen ere, egun emakume bat plazan onartzen dutela dio. Gehienetan anaiekin batera ibiltzen da, baina Gipuzkoara maiz joaten da bakarrik, herri frankotan emakumeak nahi izaten dituztelako. Euskal Herrian beste bi emakume ere aritzen dira aizkorian, iturendarra bata eta azpeitiarra bestea. Kristinak aizkora erakustaldiak egiteaz gain, baserriko martxa eramaten du amarekin batera. «Aizkoratik bizitzea ezinezkoa baita», «Entrenatzeko beti egur berria behar duzu eta garesti ateratzen da. Udako martxa izanen balitz urte guztian, orduan bai neskek eta bai

mutilek ere horretaz bizitzeko aukera izanen genuke», gehitu du Nartxi. Baina udak hiru hilabete bakarrik izaten ditu. Urritik aurrera akabo, non eta ez dute apusturik egiten. Udan lan franko izaten dute. Ohikoena asteburuak beteak izatea da, ostiralean hasi eta larunbatean eta igandean ere aritzen dira. Euskal Herriko mugetatik kanpo ere ibiltzen dira, aurten izan dira Espainiako Avila eta Toledo hirietan; Katalunian lau aldiz izanak dira, Leridan. Estatu Batuetako Nevada Estatuko Elko hirian urtero egiten duten Euskal Festan ere sei aldiz egonak dira batzuk, eta baita Japonian, Italian edota Alemanian ere. «Kanpora joaten zarenean, gustatu asko egiten da, baina joatea da zaila eta han sartzea». Hori dela eta,

## Aita zenaren bidetik

Esteban Saralegi Leitzako Arro baserriko semea zen. Ezaguna oso Euskal Herrian, beti prest egoten zelako edozein herri kirolen antolakuntza egiteko. Gainera, baserrian bizi zenez, beti izaten zituen apusturako aharriak, oilarrak edo idiak. Duela urte batzuk hil zen, bat-batean, bihotzekoak jota. Semeek herri kirolarekin jarraitu duten arren, orain ez dago hainbesteko mugimendua baserrian. Hala ere, badituzte betizuak, zortzi asto, ahateak, oiloak eta ardiak, askotan deitzen baitituzte hau edo hura behar dutela ekitaldiren baterako, dela Donostiatik, dela Iruñetik, dela beste herri edo hiriren batetik.

Beraz, herri kirolari asko eman diotela eta oraindik ere ematen diotela uste dute Estebanen seme-alabek. «Betik herri kirola indartu nahian ibili gara. Ez bakarrik etxekoa, antolaketa ere egiten ditugu», dio Nartxi. Baina, aitortu dutenez, eman ez ezik, ordainean jasotakoa handia eta polita izan da. «Fama lortzeaz gain, gauza polita da, lagun asko egiten dituzu, eta asko ematen dizu. Noranahi joan eta ongi ikusia zaud. Merez du, lan gogorra den arren. Gainera, bazter asko ikusteko aukera ematen dizu», esan dute.

Nartxi Saralegi:

«Entrenatzeko beti egur berria behar duzu eta garesti ateratzen da. Udako martxa izanen balitz urte guztian, orduan bai neskek eta bai mutilek ere horretaz bizitzeko aukera izanen genuke»

beste herri kirol askotan gertatu bezala, gero eta hobekiago prestatzen dute beren lana, ezagutzera eman ahal izateko. «Bideo bat ere badugu egina. Deitzen zaituzte kanpotik harrijasotzaileak eta aizkolarik nahi dituztela, eta hasten zara esplikatzeko nola den, eta ordu erdi bat telefonoan egon ondoren, ohartzen zara ez dizula ulertu», azaldu du Nartxi. Orain bideoa eta argazkiak bidali eta horrela moldatzen gara. «Joaten zarenean gehiago esmatzen dute, hemen ohituak gaudelako ikusten. 250 kiloko harria altxatzen duzu eta harritu egiten dira. Hemen, bestalde, ohitura handia da aizkolariei lan handia jartzeko, eta han, berriz, ematen dituzu seiren bat egur, eta ezpal handi samarrak ateratzen badituzu harrituta geratzen dira».

Batek, harria nahiago

Hainbeste aizkolariren tardean, egun dagoen harrijasotzailek onena trebatu zen. Mikel Saralegik, besteek ez bezala, harria nahiago izan zuen. Aitak nonbaitetik sortutako 60 kiloko harriarekin hasi zen Migeltxo. Sanferminetan egin zuen lehen erakustaldia 60 kiloko harri zilindroa altxatuz. Hamabi urte zituen. Gezo handixegoa egin zioten: 80 kiloko. Han eta hemen hasi zen, eta geroztik horretan dabil. Udan hiru hilabete jai hartzen ditu prestatzaile fisiko lanetan aritzen den lanegian. Hainbat saio izaten ditu eta ez litzateke guztietara iritsiko. 31 urte ditu eta ahal duen gorenera joaten saiatuko omen da. «Entrenatzen segituko dugu eta gora goazen bitartean, tira. Topea jotzen dugunean, orduan ikusi beharko zer egin», esan du. Hurrengo marka 328 kiloko altxatzea izanen da, eta heldu den neguan lortu nahi luke.

Harriaren zein aizkorearen etorkizunak ez du kezkatzen familia. «Badago koardilaxoa hor dabilena. Berbadad denak ez dira aterako, baina baten bat izanen da. Leitzan Peurenaren semea, Gipuzkoan Izetarena eta Ainar azpeitiarra, Bizkaian ere badira pare bat», dio Migeltxok. Ildo beretik, Nartxi uste du orain baino motelago egon dela herri kirola eta aizkora. «Kiolariok geurok saiatzen gara gauzak hobetzen, diru laguntzak bilatzen. Orain herri gehiagotan jartzen dira erakustaldiak. Lan asko egin behar dugu geurok, baina mejoan ari dela uste dut. Lehenagoko aizkolariek bezalakoak ez direla aterako oraingo gazteak? Izan daitezke. Lehenago beste lanik gabe aritzen ziren, beren sozioak izaten zituzten, nahiko egur etxe atarian; hori orain oso zaila da» gaineratu du. Egur tona batek 20.000 pezeta balio du (800 libera), eta bi frogatan akabo izaten da. «Baliteke maila jaiste, baina ez da galduko. Hori pilota bezala da. Orainago ez dakit onak edo txarrak diren, baina ongi bizi dira, profesionalagoak dira, telebista sartu da, publizitatea, eta herri kirolean ere gerta daitezke eta gertatzen ari da. Gazteek lagundu egin behar zaie ahal den guztia», bukatu du.

→ Irene Arrizurieta



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Txinako idazle euskaldunak

Kansuko lurraldean eta Pingliangeko gotzaitegian Euskal Herriko kaputxinoek misiotegia gobernatu zuten mende honen bigarren laurdenean; hara joan zirenen artean, ugarriak izan ziren euskal idazleak, Zeruko Argia-n bertako berri emateko aukera zinezko akuilu izan zutela



Pingliangeko eliz-barruti berria 1950.eko ekainaren 24an onartu zen Erroman, bertako lehenbiziko apezpikua Pekinen ber urteko urriaren lehenengoan sagaratu zen Larrañaga izan zela. Apezpikute-giaren sorrera erdietsi zenerako, fraide kaputxinotarrek ia hogeita bost urte bazeramatzaten Kansu aldean, 1926.etik hain zuzen ere, 1929.eko abenduaren 9an prefektura apostolikoa eratu zutelarik. Misiotegiaren probintzian Maoren iraultza arrakastatsua sartu zen osoro 1949.eko uztailaren 31n, eta orduz geroz, fraideentzako arazoak hasi ziren, bada agintarien aldetik saio guztiak egin baitziren elizgizonak oro betiko etxeratzearren. Horrela bada, ordenako nagusi gorenek misiotegiaren erabateko desagerketa onartu zuten 1954.eko otsailaren 9an.

Pingliangetik atera ziren azken misiolariak Sanshelipun zegoen Nikolas Barrenetxea Uribasterra eta Kingyangan zegoen Fernando Soloeta dimarra izan ziren, 1953.eko abenduaren 31ra arte iraun zutenak. Lehenengoa, fraide izenez Igoerreko Iulen famatua, Arratia aldeko herrixkan sortu zen 1898.ean, abenduaren 5ean hain zuzen. Buruñurduna nahi zuela, Altsasuko komentura heldu zen 1910.ean, eta Zangoza zein Hondarribiko etxeetatik pasatu ostean, Iruñean apeztu zen 1923.ean, eta handik hiru urtera, Kansura bidali zuten. Txinatik atera zenean Altsasura etorri zen eta hantxe izan zen 1988.ean zendu zen arte. Euskal egile moduan arras naroa izan zen, olerkari fina eta artikuluegile emankorra, Loramendi olerkariaren ikertzaile hauta izan

genuen, orobat Vatikanoko II. batzarraren agirien euskaratzaillea.

Pingliangeko gotzaia izan zen Iñazio Larrañaga Lasa, Alegi ondoan dagoen Aldaban jaio zen 1892.ean; beste fraidegaiek bezala, honek ere Altsasu, Zangoza, Iruñea eta Lekarozko bideak kurritu zituen, Gregorio izen berriarekin, Txinara joan aurretik. Txinatik botata, 1953.ean iritsi zen



Hondarribira, bertan 1975.ean zendu zelarik. Euskal idazle apala izan zen, eta Nafarroako kaputxinoek kudeatzen zuten aldizkarian Izaskun ezizenez Txinatik kronikak ez ezik, hainbat lan euskaratu zituen han-hemenka, eta Pan-Pin haur-paperaren sortzailea izan zen; Txinatik itzulitakoan, Euskaltzaindiak urgazle egin zuen.

Larrañaga gotzaiaren laguntzaile hurkoa Jeronimo Sarasola Treku izan zen; Tolosako Pedro Bautista 1896.ean jaio zen, eta Altsasu, Zangoza, Hondarribia eta Iruñean fraide bidean ibilirik, Txinara 1931.ean joan zen; Sarasolak

utzi zizkigun euskal lanen artean, eliz kontuei doazkionak zein Zeruko Argia-n agertu Txinatiko berriak ditugu oro har.

Lizartzako Ander Isidoro Ezenarro Goenaga genuen; 1890.ean jaioa, Lekarotz eta Zangozako komentuetan izan zen Iruñean 1914.ean apeztu aitzin. Hondarribia eta Lekarotzen maisu ihardun eta gero, Txina aldera atera zen 1926.eko irailaren 10ean Larrañagarekin berarekin batera. Txinatik bueltan Hondarribian izan zen 1961.ean zendu arte. Euskaltzale porrokatua, hari ederreko euskal idazle apartekoa izan zen, gutxi utzi izanagatik ere, eta Zeruko Argia-n atera zuenaz aparte, Mendiburu eta Lopez amikuztar euskal idazleen gaineko saiok tajutu zizkigun.

Jesus Flores Goñi Arbizuko Lutxi etxean sortu zen 1904.eko abenduaren 25ean. Kaputxino nahi zuela, Zangozan sartu zen 1921.eko abuztuaren 14an, eta bertan egin zuen profesio txikia 1922.eko abuztuaren 15ean, eta Iruñean profesio haundia 1925.eko abenduaren 26an, orduz geroztik frai Felix Arbizukoa izanen zelarik; diakonutzari 1928.eko abenduaren 22an heldu zion Gasteizko eliz-nagusian, eta apezteari, berriz, 1929.eko martxoaren 30an Iruñeko Jesus eta Mariako elizan. Berauk eskaturik, Kansuko misiotegira joan zen misiolari, 1929.eko azaroaren 15ean Genoatik atera zela Lorkako Gerardo, Garesko Bartolome eta Erroko Gerardo anaiek lagundurik; beste misiolariak egin zuten antzera, Arbizuko Felixek ez zuen Euskal Herrira itzultzerik izan, Kansun bertan zendu baitzen 1936.eko martxoaren 24an tifus gaitzak jota. Floresek Zeruko Argia-n, fraide buruñurdunek lematzen zuten argitarapenean hots, fitean-bite idatzi zituen Txinako kronikak.

## etorri ahalean

Patziku Perurena



### Mailloak?

GURETZAKO "MALLOAK" mozkorkerirako, dantzatzeko, eta oso noizean behin ligatzeko leku izandu zen. Gizaldi baten gasetako orogarrri, hura ere bukatu zen, baina, izenak uka egiten. Araitz aldean etnologo ibili zaidan filologo batek, berritu dit "Mailo" kontua, eta ez jakin zergatik, liluratu egin nau izen sorginak.

Orotariko Euskal Hiztegiak bi esanahi jasotzen ditu: Mailo 1: haitz, harmail nabari eta pikoa. Mailo 2: belarsoro goi aldapa haundikoak. Baina bi esanahiak nahastu egiten dira, edo bestela esan, inork ez ditu argitu, nik dakidala behintzat, elkarren mugak. Harkaitz modu bereziren baten izen zaharrak zor die izen berria belardiei, edo alde-rantziz? Nik baditut neure zalantzak.

Alde batetik argi dago, toponimian ugariak direla "Malla, Mallea, Maloa" bezelako izen zaharrak, betiere leku harriz, nabari eta gaiztoei lotuak. Baina, komunalen eraginik tarteko gabe, alegia, eta ugari argi jakitea non eta nolako. OEH-ak Hueskako N<sup>a</sup> S<sup>a</sup> de Mallo aipatzen du: "estando aquel pueblo (Riglos) debajo de los dichos Mallos, que son unos peñascos muy altos, corpulentos y redondos". Leitza-larreko "Malo" eta Ezkurreko "Maloa" toponimoak dakazkit gogora pasarte horrek.

Tipologia jakin bateko belardiei lotutako "maillo" izena ordea askoz ere ugariagoa da. Honatx OEH-ak jasotzen dituen lekukotasun batzuk. Amezketan: "prado comunal"; Ataunen: "herbal en gradas o pendientes escalonadas". Lekunberrin: "herbal en pendiente", eta RIEV-k diona azkeneko: "se llaman así tradicionalmente las praderas colgadas, sobre el valle navarro de Araiz, pero hoy por extensión, se aplica a todo el circo de Aralar, desde el monte Alborta hasta el Balerdi".

Eta Araitzera bildu garenez, hona nere lagun filologoak Gaintzan bildutako mailo kontuak: "Malloan baktotzak bee puskek mugarittuk titto denak. Ta Malloko puskek ez, Malloko zotzak esaten due jenealean, oik die lengo izkuntzakoak. Denak ben izenak battue zotz oik. Nik etxakoak dazkit: Larramear; Soilats; Iturrita, Aizeleku; ta aunditakoa Uniketa. Oik tee gue zotzan izenak. Zotz onak badee; txarrak e bai, beño ongi estimatue izaten tzen Malloa Jesusu! Or tzen gauz pet: belar ona".

"Terrenoz Intzek izengo u Malloik aundina. Errazkingok e mallo ttikie due, Betelukok e bai, barruti bezala zotz mear batzuk beitti-gora. Askaatek ttikie do Malloa, belar itteko lekue oso pixke, Mallozarra esate ie, andik aurrea Txakaie, basoa dena, Bedaio aldeko muaño".

"Oain inorrek eztu belarririk eitten, da artzaiei ematen tzeie Malloa, da oik pagatzen due. Oi propiedade dauku, bakoitzek bee pusken kontribuzioa patzen dula. Aitzondoa esaten tzaion beste oi berriz komunal".

Mailloak ezaugarri jakinak dituzte: leku goi eta aldapakoak; belar urri baina ona; herri bakoitzak bere maillo itxia; eta barrenean etxe bakoitzak bere sorroa, itxi gabe, zotzaz mugatua, jeneralean goitik behera-ko maila mehar luzetan. Eta "Ezkurreko malluu! esaera nondik ote dator, Aldapako Sorotatik?"

Badirudi mailoak sortzez, herrilanez prestatuak izan zirela. Oraindik hor baitirau jabego/komunal auziak herri askotan. Eta ez harritu, "maillo" hitza bera, "mailegu" hitzetik sortu izatea ere. Dena dela, nere uste arrotz hau parrez ukatu ondoren, komeniko litzateke mailloen alderdi juridikoan erroraino jotzea: hartara izen sorgin honen sorrera ere argituko bailitzateke. Hire esku, Mikel.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Zulorik sakonena

LEIZE-ZULO SAKONA GIPUZKOAREN ETA NAFARROAREN ARTEKO mugan. Zerbait sumatzen hasiak ginen aspaldi honetan. Sintomak ezagunak ziren. Oraingoan gaitza non den jakinik konponbideren bat bilatuko ote?



# Javier Zuñiga

☉ Suhiltzailea

## «Suhiltzaileen arteko komunikazio oinarri izan nahi du aldizkariak»

**Nafarroako Suhiltzaileen Kirol eta Kultur Elkarteak *Sua* sehilabetekariaren bigarren zenbakia kaleratu du. Behar horretan aritzen direnek egin denez, eurei eta finantzatzen duten enpresa pribatuei zuzendua da bereziki. Javier Zuñiga aldizkariaren zuzendariak dioenez, beste suhiltzaile talde batzuek ez bezala, aldizkari tekniko eta astun bat argitaratu beharrean, irakurterraza eta interesgarria izatea lortu nahi dute.**

direnez—horren araberaok izanen dira.

■ **Gizartea hezi eta kontzientziatu egin behar dela diozu. Zer egiten du horretarako Administrazioak?**


Bi kultura ezberdin begiratu beharko genituzke. Bate-tik, mendira doan hirritarrarena eta jakiak erretzeko sua egiten duenarena —horiek hezitzea erraza da—. Bestetik, ganaduzalearena edo mendi zatiren baten jabe denarena dago. Horiek uste dute zakarrak erretzearekin belarra hobekiago aterako dela, eta basoan sastrakari sua eman behar zaio. Hura hezitzea askoz makurragoa da, hein batean balitekeelako berak arrazoia izatea. Ere bat oso zikina badago, sastraka askorekin, erretzen duzu eta dena desagertarazten duzu.

..... ● .....  
*«Suhiltzaile-parke asko daude, baina oso sakabanatuak, eta gure arteko harremana oso noizbehinkakoa da»*  
 ..... ● .....

Baina hori ere da gakoa: guztiarekin bukatzen duzula. Orduan, saiatzen gara gauzak hobekiago nola egin daitzekeen azaltzen. Administrazioak egiten ditu kanpainak, baino hobekia izan zitezkeen, sakonagoak, eta ez hain gogorrrak. Herriz herriz ibili behar luke, nekazariarekin mintzatu eta informazioa eman; ikus dezatela mendia erabiltzeko beste modu batzuk ere badaudela.

■ **Betetzen dira Administrazioak ezarritako arauak?**

Erdizka. Sastraka erretzeko herriko alkatearen edo idazkariaren baimena behar da eta, baimena baduten arren, lagun bakarria aritzen da lan horretan. Arauen ara-



● JOSU SANTESTEBAN

**A**RGITALPENAREN BIGARREN zenbakia besterik karrikaratu ez badute ere, pozik daude egin duten lanarekin eta izan duen harrerarekin. Hori antzemateko nahikoa da Javier Zuñigak dioena entzutea.

■ **Sua aldizkariaren bigarren zenbakia kaleratu berri duzue. Nola sortu zen ideia?**

Duela bi urte pasatxo suhiltzaileek bazuten kirol elkarte, baina ez zituen ekitaldi asko egiten. Hala ere, kirol eta kultur zaletasuna zuten suhiltzaile asko bere kabuz aritzen zen. Hori dela eta, elkarte zuzendaritzaz aldatu zenean, lau lagunek hartu genuen eta hainbat ekintza antolatzen hasi ginen. Elkartearen ekitaldiez gain, aldizkaria kaleratzea pentsatu genuen, eta bertan suhiltzaileekin zerikusia duten beste gai batzuk jorratzea. Nafarroako suhiltzaileen arteko komunikazio oinarri izan zitezkeen aldizkaria, alegia; komunikazio arazoetako bat baita —suhiltzaile-etxe asko daude, baina oso sakabanatuta eta gure artean dagoen harremana oso noizbehinkakoa da.

■ **Harrera ona izan du suhiltzaileen artean?**

Bai. Jendea pozik dago egiten ari garen lanarekin. Ez zuten espero hain itxura oneko eta txukun egindako aldiz-

karirik topatuko zutenik. Bestalde, antolatu ditugun ekitaldiak ere gustukoak izan dira; hasieran gutxi egin genituen, baina aurrean asko egin ditugu. Orain, suhiltzaileen lehenengo nazioarteko lasterketa prestatzen ari gara.

■ **Aldizkariak zuen aisialdia ez ezik, zuen lana ere badu mintzagai. Irakurlea ohartzen da dituen ohitura batzuk aldatu behar dituela. Adibidez, udako suteez mintzatzen zaretenean?**

Jendea gero eta gehiago ohartzen da, eta batez ere gazteak. Hala ere, kanpainak egiten aritu behar duzu, etengabe. Hori bakarrik ez. Jendea hezi egin behar da. Aldizkari irakurgarria eta erakargarria egin nahi dugu. Badira suhiltzaileen beste aldizkari batzuk, oso teknikoak, eta guk, guretzako ez ezik, besteentzako ere baliagarria den aldizkaria egin nahi genuen. Artikuluak irakurlearen ikuspegitik egiten saiatzen gara.

■ **Sute asko gertatzen ari dira uda honetan?**

Oraingo ez dira asko izan, baina uste da irailean eta urrian izanen direla, orain lurra nahikoa lehorra baitago. Jendeak nola jokatzeko duen izanen da gakoa, sute gehienak —nahita sortuak edo zabarkeriagatik eraginak

bera, bi traktore, sei lagun eta lau metroko ingurua egin behar dute, baina baimenarekin nahikoa dela uste dute.

■ **Boluntarioen lana ona da?**

Nafarroan 350 suhiltzaile gaude. Gutxiegi gara herrialde osoarako. Egunean 50-60 bat aritzen gara lanean. Iruñean 10 suhiltzaile-etxe daude, baina badira hiru-lau lagun bakarrik dituztenak. Mendiak sua hartzen du eta ezinezkoa da lauren artean itzaltzea. Boluntarioen suhiltzaile-etxeak beharrezkoak dira, eta bada mordoxka: Beran, Leitzan, Lesakan, Agoitzen, Izaban eta Luzaiden. Beren lana lehen sua kontrolatzea da, profesionalak iritsi arte. Gainera, inguru hartakoak izatean, guk baino hobekiago ezagutzen dute parajea, eta guk ezagutzen ez ditugun bideetatik sar daitezke, eta arazoa azkarrago saihestu.

■ **Euskarak ere badu lekuerik?**

Bai. Suhiltzaileen artean euskal hiztun asko dago, eta elebidun egin nahi dugu. Euskara gero eta gehiago sartu nahi dugu, eta horren aldekoak gara.

→ Irene Arrizurieta

### s o s l a i a

Javier Zuñiga 1994tik dabil suhiltzaile lanetan. Lehenago Suhiltzaileen Seguratasun Eskolako irakaslea izan zen: suhiltzaileen prestaketa fisikoaz arduratzen zen. Egun, Auritzko parkean egiten du behar, eta oso gustura, gainera. "Hura zoragarria da, ezagutzen ditudan tokietatik politenetakoa da eta inon aurkitzen ez ditudan txokoak ditu. Bestalde, lana bukatutakoan, lasterka egitera, eskiatzera, entrenatzera joan zaitezke".

Zuñigaren aburuz, suhiltzailea oso pertsona mugitua izaten da eta hainbat gauza egitea izaten du gustuko. Hori dela eta, "oso lehengai ona" dagoela uste du. Bera da horren erakusgarri: aldizkarian aritzeaz gain, Informatik anaien prestatzailea da eta hainbat kirol egiten ditu.

Sua aldizkariak lan handia ematen die. Zuñigak eta sehilabetekariaren ari diren beste hiru suhiltzaileek arazoak izan ohi dituzte: "Ez gara kazetariak, eta espero ez ditugun arazoak sortzen dira: argazkiak falta direla, artikulatu batek huts egiten duela. Aleko 20-25 artikulatu behar direnez, ez dugu lasai eramateko adina jende", azaldu du.





## Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

### Entrexatak eta fini!

**A**gorraren agorra hanpatzen ari zaigun honetan, ikasturtea berehala hasiko zaigu, ikasturtea, denboraldia edo gero eta gauza gehiagoren aldia. Neurontziari on egiten dio jlargaldi oso batez inguru hurbil zurrumbilotsuz ez jabetzeak, behar bada, begiak berriz zabaltzerakoan zer edo zer konpondua egonen den esperantzan. Baina ez da halakorik gertatuko, noski. Kondenatua nago (gaude) Sanz eta Barcinaren aurpegiak, irri ajataka, toki orotan ikustera eta Lizarbek, bere aldetik, gogotik eginen du lana (rioren alde eta faboretan?) uztailen paratu zioten soldatak gogoberrituta, idazkari sozialistaren alderdikide Iturbe pozez txoratzen dabilen bezala. Ezen oporraldi honetan ni ezerk harritu banau, zinegotzi horren alegrantzia eta prestasuna izan baita, alkatesaren asmoekin bat egiterakoan. Ikusten da Iturbek bere burua laudatua ikusi nahi duela Kordobillako papelean, Federico Tajadurari egindako erasoaldi mediatikoa gogoan hartuta.

Bizkitartean, egunotan nabaria izan da, azkenean, nola irriparra agertu zaien Jauregiko txapelgorri eta, jakin badakite, Itoizko solidarioak hamaikagarren aldiz balkoian edo leiho hegian azaltzeagatik ere, bertze zaintzabide batzuek are huts larriagoak dituztela. Tamala, Diputazioa ez baita Sevillako estadioa bezain ezaguna izanen gerri buelta osoan.

Hitz batez, oportetarik itzulitakotan, den-denak bere horretan irauten du, ia den-denak, hobeki erran. Eta hemendik aitzinera gorabehera franko ere izanen denez, bertze zenbaitek iruzkinduko ditu gertakari horiek oro, muxiko-dantzari den lerroegile honek hauxe manatu baitio bere buruari: Entrexatak eta fini!

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Noain:** Skalariak eta Contaminacion Acustica taldeek joko dute bihar, 22:30etan, San Miguel plazan.
- **Lizarra:** Moliendo Cafe Trio eta Lagunak taldeak kontzertua emanen du 22:00etan.
- **Erronkari:** Julian Gayarre Museoa Eduardo Cle tenorearen eta Miguel Sesma piano jolearen emanaldia izanen da bihar, 13:00etan eta 18:00etan.
- **Tutera:** Katedraleko klausuroan Iruñeko Ganbera Abesbatzaren emanaldia izanen da gaur, 19:30etan.
- **Lesaka:** Oskorri taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 22:30etan, frontoian.
- **Bertiz:** Bertizko Jaurrenri Quinteto Clasico taldeak joko du bihar, 12:30etan eta 18:00etan.

### ANTZERKIA

- **Noain:** Gaur Los Galindos taldeak Amalgama lana antzertuko du 20:00etan, San Miguel plazan. Etxidamu, Boni eta Caroli bikoteak Sidecar lana jokatu dute, ordu eta toki berean.
- **Zangoza:** Gaur Markeliñe taldeak Aló Europa lana taularatu du, 22:00etan, Foruen Plazan.

### BESTELAKOAK

- **Artikutza:** Bihar San Agustin zaindariaren eguna ospatuko dute Artikutzakoe. Urte osoan baimenik gabe ez daiteke sar Goizuetako lurrotan, baiña bihar izanen da aukera Donostiako Udala jabe duten mendiotara eta urtegira joateko.
- **Berriozar:** Etzi herri kirol jaialdia eginen da, 18:00etan Ilargi parkean. Ultzama, Etxauri eta Berriozarko taldeen artean proba konbinatua

jokatuko dute, eta bi erakusketaldi ere izanen dira: Olano leitzarrak eta Mikel Mariñelarena beasaindarrak motozerrarekin aulki bat eginen dute, eta Astigarragako Hirukoteak belar meta bat.


► **Antsoain:** Kontakizun Laburreko XI. Lapurbide Lehiaketa antolatu du Udalak. Gaia librea da eta nahi duena aurkez daiteke, dela euskarazko lanekin, dela gaztelaniazkoekin. Informazio gehiago nahi duenak dei dezala 14-12-81 telefonora.

► **Barañain:** IKako Sahats euskaltegiak Udako Ikastaroak antolatu ditu irailerako. Ikastarook urrats guztiak jorratuko dituzte. Lau aste iraungo dute, astelehenetik ostiralera egunero, hiru orduz. Izena eman edo informazio gehiago nahi duenak dei dezala 948-18-83-25 telefonora.

► **Barañain:** IKako Sahats euskaltegiak Udako Ikastaroak antolatu ditu irailerako. Ikastarook urrats guztiak jorratuko dituzte. Lau aste iraungo dute, astelehenetik ostiralera egunero, hiru orduz. Izena eman edo informazio gehiago nahi duenak dei dezala 948-18-83-25 telefonora.

## Arestiren liburutegia

Castelao nos



Na veira do Miño:

—E os da banda d'alá, ¿son máis estranxeiros que os de Madri?

(Non se soupo o que lle responden o vello.)

Miño ondoan:

Eta bestelakoak Madrildarrak baino atzerritarragoak direla? (Agureak entzun ziona ez dugu jakin)